Txostena 2004 Memoria

TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA



**Aurkezpena-gutuna** 5
**Administrazio batzordea** 8
**2004ko Antzezpenak** 11
**ZINEBI 2004** 41
**Kolaborazioak** 47
**Estatistikak** 51
**Jarduerak** 61
**Azpiegitura** 65
**Antzokiko produkzioak** 69
**Harremanak** 73
**Esker onak** 75
**Kredituak** 76

Carta de presentación 5
Consejo de administración 8
Espectáculos 2004 11
ZINEBI 2004 41
Colaboraciones 47
Estadísticas 51
Eventos 61
Infraestructuras 65
Producciones propias 69
Contacto 73
Agradecimientos 75
Créditos 76

A

Oraingoan ere, urteko memoria honen bitartez, Arriaga Antzokiak jendaurrean aurkeztu nahi ditu joan zen 2004. urteko ekitaldietan jasotako emaitzak. Zenbat ikusle etorri ziren urtean zehar eta zein ekitaldi ikustera; agertokian izan genuen arte-adierazpide bakoitzak –dantza, antzerkia, musika, zartzuela, eszena irekia...– nolako harrera izan eta zenbat diru ekarri zuen.

Lan hau argitaratzearen zergatia bikoitza da. Lehenik, kultur enpresa honi eusten diotenen aurrean azaldu nahi dugu aurreikusitako emaitzak lortu egin ditugula. Ez bakarrik Bilboko Udalaren aurrean –antzokiaren jabea baita–, edota finantziazioan lagundu duten erakunde publiko eta pribatuen aurrean; baita, eta bereziki, ikusleen eta Bilboko hiritarren aurrean ere, azken batean Bilboren promozio eta garapen kulturalaren alde ari baikara lanean. Hurrengo orrialdeetan ikuskizun bakoitzaren gaineko informazio oparo eta xehatua aurkituko duzue: ikusleen harrera, emaitza ekonomikoak... baina aurreratu dezakegu balantzea ona izan dela. Dezenteko ona bai behintzat. Hasi ginen garaitik honako tartean, ohartu gara Arriagak baduela denborarekin sendotuaz joan den publiko bat. Horixe da hain zuzen Antzokiaren aktiborik behinena; eta horrek adierazten duena da gure gizarteak egin duen kultur eskaerari erantzuten jakin duela Antzokiak. Emaitza ekonomikoekin ere gustura egoteko moduan gaude. Urteko ekitaldia superabit sinboliko batez itxi da eta horrek esan nahi du aipatutako emaitzak aurrekontu zorrotz eta orekatu batekin bat eginda lortu ditugula.

Memoria hau argitaratzearen bigarren arrazoiak geure burua aztertzera eta hausnar egitera garamatza: ea zer izan den lortu duguna eta ea zer den lortzeko geratzen zaiguna. Nola egin, daukagun publikoari eusteaz gain, ez daukaguna gurera erakartzeko? Zer egin gazteengan interesa pizteko? Eta ikuskizun bakoitza hobeto iragartzeko? Nola egin, lortutakoarekin gustura geratu bai baina ohikerian ez erortzeko?

Orain arte ikasitakoarekin eta egunez egun ikasten dugunarekin galdera hauei ez ezik beste batzuei ere erantzuteko ahalegina egiten ari gara. Datorren urtean izango dugu aukera erantzunotan noraino asmatu dugun ikusteko.

De nuevo el Teatro Arriaga quiere hacer públicos, mediante la presentación de esta memoria anual, los resultados obtenidos en las actividades desarrolladas a lo largo del pasado año 2004. Cuántos espectadores acudieron a lo largo de todo el año, y a cada espectáculo. Qué acogida tuvo cada una de las artes –danza, teatro, música, zarzuela, escena abierta...- que ocuparon su escenario y qué ingresos generaron.

El motivo de este trabajo y su publicación es doble. En primer lugar dar cuenta ante quienes sostienen esta empresa cultual de la medida en la cual hemos logrado los resultados previstos. No sólo ante el Ayuntamiento de Bilbao, a quien este teatro pertenece, y ante las instituciones públicas y privadas que han colaborado a su financiación, sino de manera especial ante el público y el pueblo de Bilbao, a cuya promoción y desarrollo cultural estamos dedicados. En las páginas siguientes hallarán una profusa y detallada información sobre cada espectáculo, su acogida de público y su resultado económico, pero podemos adelantar aquí que el balance es satisfactorio. Razonablemente satisfactorio al menos. Después de estos años de andadura constatamos que el Arriaga tiene un público que a lo largo del tiempo se ha ido consolidando. Ese es sin duda el primer activo del Teatro y la expresión de que ha sabido responder a la demanda cultural que nuestra sociedad reclama. Otra causa de satisfacción son los resultados económicos. El ejercicio anual se ha cerrado con un superávit de una cuantía simbólica, lo que implica que se han logrado dichos objetivos ajustándose a un presupuesto estricto y equilibrado.

El segundo motivo de la realización de esta Memoria es servirnos a nosotros/as mismos/as de estudio y reflexión sobre lo conseguido y lo que queda por conseguir. ¿Cómo lograr, no sólo mantener el público que nos frecuenta, sino atraer también al que no lo hace? ¿Cómo despertar el interés de los más jóvenes o lograr la mejor difusión de cada acontecimiento? ¿Cómo evitar darnos por satisfechos con lo logrado y caer en la rutina?

Con el bagaje adquirido hasta hoy y lo que cada día nos hace aprender estamos tratando de dar respuestas a estas y a otras muchas preguntas. El año que viene tendremos ocasión de comprobar en qué medida hemos acertado en ellas.

Jon Sanchez Ibarluzea

**Arriaga Antzokio Presidente Eragilea**
Presidente Efectivo del Teatro Arriaga



PACO DE LUCÍA

# ADMINISTRAZIO BATZORDEA ETA ARRIAGA ANTZOKIAREN ZUZENDARITZA

## CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN Y DIRECCIÓN DEL TEATRO ARRIAGA

# ARRIAGA ANTZOKIAREN KONTSEILARIAK
# RELACIÓN DE CONSEJEROS DEL TEATRO ARRIAGA

## BEREZKO PRESIDENTEA
PRESIDENTE NATO

Excmo. Sr. Don Iñaki Azkuna Urreta

## PRESIDENTE ERAGILEA
PRESIDENTE EFECTIVO

Don Jon Sanchez Ibarluzea

## KONTSEILUKIDEAK
CONSEJEROS

Doña Ana María de Castro Rualcaba
Doña Nerea Arribas Sabando
Doña Virginia Aguado Arnaiz
Doña Concepción López Ledesma

Doña Juana María Iturmendi Maguregui
Don Luis Hermosa Santa María
Doña Beatriz Calvo Fernández
Don Jesús Sanz Salamanca

Don Fernando García de Cortázar
Don José María Oleaga Zalvidea

Don Txema Gonzalo Casal

Don Francisco Javier García Diez

## BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA

Ilma. Sra. Belén Greaves Vadillo

## ARRIAGA ANTZOKIAREN LANGILEAK / 04-12-3an
## PERSONAL DEL TRATRO ARRIGA / AL 31-12-04

| IZENA<br>NOMBRE | LAMPOSTUA<br>PUESTO DE TRABAJO |
|---|---|
| José Ignacio Malaina Sánchez | **Zuzendari Magusia /** Director Gerente |
| Miren García Bernaola | **Zuzendaritza Laguntzailea /** Ayudante de Dirección |
| Natividad Alonso Alonso | **Giza Baliabideetarako Administrari Laguntzailea /** Auxiliar Administrativo de RR.HH. |
| Jesús Mª Rico Hernández | **Administrari Laguntzailea-Kontabilitatea /** Auxiliar Administrativo-Contabilidad |
| Itziar Olalde Rementería | **Teknikari Laguntzailea /** Técnico Auxiliar |
| Fernando Seisas López | **Teknikari Laguntzailea /** Técnico Auxiliar |
| Jon Barañano Iraider | **Teknikari Laguntzailea /** Técnico Auxiliar |
| Javier Peñas Peñas | **Teknikari Laguntzailea /** Técnico Auxiliar |
| María Teresa Pérez Fernández | **Teknikari Laguntzailea /** Técnico Auxiliar |
| Sara Villa Arroyo | **Aretozaina /** Acomodador/a |
| Miguel Calle Herrero | **Aretozaina /** Acomodador/a |
| Daniel Diéz González | **Aretozaina /** Acomodador/a |
| José Manuel Sánchez San Juan | **Aretozaina /** Acomodador/a |
| Antonio Soto Ibáñez | **Aretozaina /** Acomodador/a |
| Andoni Olivares Ijalba | **Programazio eta Operazioetako Zuzendaria /** Director de Programación y Operaciones |
| Izaskun Etxebarria Goikoetxea | **Programazio Arduraduna /** Responsable de Programación |
| María Dolores del Campo Serrano | **Programazioko Teknikaria /** Técnico Programación |
| José Antonio Ochoa Oribe | **Operazioetako Arduraduna /** Responsable de Operaciones |
| Joseba Erkiaga Cilloniz | **Errejidorea /** Regidor |
| Oscar Armendáriz Lucarini | **Jostundegiko Arduraduna /** Responsable Sastrería |
| Javier Iturrioz Uriondo | **Tramoiaria /** Tramoyista |
| Carlos Albizuri Martínez | **Tramoiaria /** Tramoyista |
| Ibon Andueza Elorza | **Tramoiaria /** Tramoyista |
| Ángel Mª Alonso García | **Argiketaria /** Electricista |
| Antonio de la Cruz Arias | **Argiketaria /** Electricista |
| Gorka Ochoa Gorostiza | **Argiketaria /** Electricista |
| Fco. Javier Saiz Blanco | **Argiketaria /** Electricista |
| Joseba Urkizu Villalain | **Tramoiari Laguntzailea /** Ayudante de Tramoyista |
| Fco. Javier Izagirre Goikolea | **Tramoiari Laguntzailea /** Ayudante de Tramoyista |
| Germán Cundín Pérez | **Tramoiari Laguntzailea /** Ayudante de Tramoyista |
| Laureano Fernández Iriarte | **Tramoiari Laguntzailea /** Ayudante de Tramoyista |
| María Ángeles Olea Bilbao | **Ziname Jaialdiko Idazkaria Orokorra /** Secretaria General Festival de Cine |
| Lucía Goitia Calzada | **Teknikari Laguntzailea /** Técnico Auxiliar |

## AHOLKULARI ARTISTIKOA
## ASESOR ARTÍSTICO
LLuís Pasqual



YO, CLAUDIO

## 2004KO IKUSKIZUNAK
ESPECTÁCULOS 2004

## MAYUMANÁ
urtarrila 1 - 6 enero

**ESCENA IREKIA**
ESCENA ABIERTA

Ikusleen artean sekulako arrakasta izan zuen ikuskizun honekin 2003. urtea itxi eta 2004a ireki zuen Mayumaná konpainiak. Ikuskizun honetan antzerki-generoen mugak puskatu eta lengoaia berriak aurkitzen ahalegintzen dira; horretarako, perkusioa, erritmoa eta dantza antzerkia, umorea eta interpretazioarekin uztartzen dituzte.

Con una extraordinaria aceptación del público, la compañía Mayumaná cerró el año 2003 y abrió el 2004, con este espectáculo donde se combinan la percusión, el ritmo y el baile con el teatro, el humor y la interpretación en un esfuerzo por superar los límites de los géneros teatrales y encontrar un nuevo lenguaje.

## MASA CORAL DEL ENSANCHE
urtarrila 10 enero

**KONTZERTUA**CONCIERTO

Zabalguneko Abesbatzak 100 urte bete zuen eta ondoen egiten dakitena eginez ospatu zuten mendeurrena, hots, zartzuela protagonista izan zuen kontzertu bat eskainiz, beste behin ere, euren zale ugarien gozamenerako.

La Masa Coral del Ensanche cumplió cien años y lo celebraron como mejor saben; ofreciendo un concierto en el que la zarzuela fue una vez más la protagonista, para satisfacción de sus muchos aficionados.





## BALLET BIARRITZ

**DANTZA**DANZA

**urtarrila 16 - 17** enero

**Miarritzeko Balet Gazteak, Thierry Malandainen zuzendaritzapean, "Création" eskaini zigun, Beethovenen "Prometeoren Kreaturak" obraren musikarekin. Arriaga Antzokiak berak koproduzitutako ikuskizun honetan gizateriaren eta dantzaren historia nahasten dira.**

El joven Ballet de Biarritz, con su director Thierry Malandain al frente, nos ofreció "Création" , con música de "Las Criaturas de Prometeo" de Beethoven. Un espectáculo, coproducido por el propio Teatro Arriaga, donde se entremezclan la historia de la humanidad y la historia de la danza

## UNA HABITACIÓN LUMINOSA LLAMADA DÍA

**ANTZERKIA**TEATRO

**urtarrila 22 - 24** enero

**Tony Kushner estatubatuarraren antzerki-obra hau Hitler boterera iristen ari zeneko Alemanian girotua dago. Obran zehar tragedia eta komedia nahasten dira filosofiaz eta politikaz jarduteko. Muntaiaren zuzendari Gerry Mulgrew izan genuen eta aktoreen artean, berriz, Kiti Manver zen buru.**

Esta obra teatral del norteamericano Tony Kushner, ambientada en la Alemania que estaba asistiendo al ascenso de Hitler al poder y donde tragedia y comedia se mezclan para hablar de filosofía y de política, nos llegó en un montaje dirigido por Gerry Mulgrew y con un reparto que encabezaba Kiti Manver.







## L'OCCASIONE FA IL LADRO

**OPERA**OPERA

**urtarrila 29 / 31** enero

Ironia eta umorez betetako burlazko opera zoragarri hau Gioachino Rossinik sortu zuen 20 urte zituela. Nolanahi ere, egilearen estiloaren ezaugarriak hortxe daude, antzemateko moduan. Gran Teatre del Liceuk eta Teatre Lliurek koproduzitu zuten eta antzerki eta musika munduko profesionalak elkartzen diren opera-tailer baten emaitza da.

Esta deliciosa opera bufa llena de ironía y humor compuesta a los veinte años, pero donde ya se anticipan las características del estilo de su autor, Gioachino Rossini, fue coproducida por el Gran Teatre del Liceu y el Teatre Lliure, como fruto de un taller de ópera donde se dan cita profesionales del mundo del teatro y de la música.

## FARRUQUITO

**DANTZA**DANZA

**otsaila 6 - 7** febrero

Farruquito dantzaria, Farruco familiaren katebegia, artista flamenkoen seme eta biloba da. "Alma vieja" obra eskaini zigun, bere antzinako arbasoei, kantu zaharrei eta dantzarik puruenari egindako omenaldia. Ikuskizun sentitu eta sakona.

El bailaor Farruquito, hijo y nieto de artistas flamencos y último eslabón de la familia Farruco, nos ofreció con "Alma vieja" un tributo a sus ancestros, a los cantes antiguos, al baile más puro, en un espectáculo sentido y profundo.







## EN MEMORIA DE COMPAY SEGUNDO

ESCENA IREKIA
ESCENA ABIERTA

otsaila 8 febrero

Bizirik zegoela berarekin zebiltzan musikariek munduan zehar dihardute Compay Segundoren ondare musikala zabaltzen, haren izena hartuta. Emanaldi honetarako Pio Leyva –sonero zaharren artean onenetakoa– eta Teresa Caturla batu zitzaizkien.

El grupo de músicos que le acompañaron en vida continúan hoy difundiendo por todo el mundo el legado musical de Compay Segundo, de quien han tomado el nombre. Se sumaron a ellos en esta ocasión Pío Leyva, uno de los grandes soneros de la vieja guardia y Teresa Caturla.

## KUTSIDAZU BIDEA, IXABEL

ANTZERKIATEATRO

otsaila 10 - 12 febrero

Umorez betetako antzezlan hau, Joxean Sagastizabalek idatzia, euskarazko literaturan irakurriena eta salduena da. Gorringo konpainiaren lehen muntaia honetan, bere euskara "hobetzeko" asmoz baserri batera joan den euskaldunberri baten estualdi eta zailtasunak kontatzen dizkigute.

Esta obra de teatro llena de humor, original de Joxean Sagastizabal es la más leída y vendida de la literatura en euskara. Con ella la compañía Gorringo nos contó, en su primer montaje, los apuros y dificultades de un euskaldunberri en un caserío donde pretende "perfeccionar" su euskera.





## COMPAÑÍA DE DANZA GEORGES MOMBOYE

**DANTZA**DANZA

**otsaila 13 - 14** febrero

Georges Momboye gazte-gaztea zela trebatu zen dantza afrikarrean, eta baita dantza klasikoan, jazz-ean eta dantza garaikidean ere. 1992an berak sortu eta bere izena duen konpainiarekin “Adjaya” (ametsa, bere herriaren hizkuntzan) eskaini zigun, kontzertu koreografiko bat non tradizioa eta modernitatea uztarri berean lotzen diren.

Georges Momboye, formado desde muy joven en la danza africana, pero también en la clásica, el jazz y la danza contemporánea nos ofreció con la compañía que fundó en 1992 y que lleva su nombre ,“Adjaya” (sueño, en la lengua de su pueblo), un concierto coreográfico de músicos y danzantes donde se unen tradición y modernidad.

## DIATRIBA DE AMOR CONTRA UN HOMBRE SENTADO

**ANTZERKIA**TEATRO

**otsaila 15 - 16** febrero

Emakume bat bere bizitzaren historia –gizon baten ondoan bizitakoa– aletzen ari da, eta bien bitartean gizon hori eserita dago, isilik, egunkaria irakurtzen edo irakurtzearen plantak egiten. Gabriel Garcia Marquez Literatur Nobel Saridunaren testu baten inguruan ardaztuta, Gerardo Veraren eszenografia eta jantziekin eta Jose Carlos Plazaren zuzendaritzapean, Ana Belenek antzerki muntaia ederra eskaini zigun.

Una mujer va desgranando en escena la historia de su vida junto al hombre que sentado en silencio lee, o finge leer, el periódico. Sobre un texto del Premio Nobel de Literatura, Gabriel García Márquez, con la escenografía y vestuario de Gerardo Vera y la dirección de José Carlos Plaza, Ana Belén nos ofreció un gran montaje teatral.







## EL CASERÍO

**ZARZUELA**ZARZUELA

**otsaila 26 - 28** febrero

**Beste behin ere J. Guridiren zartzuela ospetsuaren inguruan ardazturiko ekoizpen propio hau aurkeztu zuen Arriaga Antzokiak, eta ikusleen harrera aparta izan zen berriro ere. Arrakastaren erantzuleak ondokoak izan ziren: Gorka Sierrak zuzentzen duen Bilboko Abesbatza; Emilio Sanchez, Beatriz Lanza eta Juan Jesus Rodriguez bezalako antzezleak; Maribel Belastegiren zuzendaritza eszenikoa eta Juanjo MENAk zuzendutako Bilboko Orkestra Sinfonikoa.**

Una vez más el Teatro Arriaga presentó esta producción propia de la popularísima zarzuela de J. Guridi, y una vez más recibió la acogida entusiasta del público. La Sociedad Coral de Bilbao dirigida por Gorka Sierra, unos intérpretes como Emilio Sánchez, Beatriz Lanza y Juan Jesús Rodríguez, la dirección escénica de Maribel Belastegi y la Orquesta Sinfónica de Bilbao dirigida por Juanjo MENA fueron responsables de ese resultado.

## MARÍA DOLORES PRADERA

**ESCENA IREKIA**
ESCENA ABIERTA

**otsaila 29** febrero

**Berriro ere ikuskizun aparta oparitu zigun Maria Dolores Praderak: "Canciones del alma". Oraingo honetan eszenaratze berri batekin eta bere betiko bandarekin (gitarrak, txarangoa, kontrabaxua, perkusioak eta errekintoa) etorri zen. Gainera, banda indartzeko beste artista batzuk ere etorri ziren, mariatxi musikaren bitartez Mexikoko aireak ekarri zizkigutenak.**

María Dolores Pradera volvió a regalarnos con "Canciones del alma" un magnífico espectáculo, en esta ocasión con una novedosa puesta en escena y acompañada de su banda habitual (guitarras, charango, contrabajo, percusiones y requinto) reforzada por otros artistas que nos aportaron aires de México con su música mariachi.







## ¡EXCUSAS!

ANTZERKIATEATRO

martxoa 3 - 7 marzo

Jordi Sanchez eta Joel Joanen antzezlan honetan bikote harremanen disekzioa egiten da umorea erabiliz; umore batzuetan azidoa, bestetan samurra baina beti ere dibertigarria. Pep Anton Gomez zuzendariak abiada bizi-bizia eman zion muntaiari eta lau antzezleei onena atera zien barrutik. Lau antzezleok, ondoko hauek: Pepon Nieto, Luis Merlo, Ana Labordeta eta Melani Olivares.

En este texto teatral de Jordi Sánchez y Joel Joan se diseccionan las relaciones de pareja con un humor a veces ácido, a veces tierno pero siempre divertido. Su director Pep Antón Gómez imprimió un ritmo trepidante al montaje extrayendo lo mejor de sus cuatro intérpretes: Pepón Nieto, Luis Merlo, Ana Labordeta y Melani Olivares.

## B.O.S. + MICHEL CAMILO

KONTZERTUACONCIERTO

martxoa 10 marzo

Bilboko Orkestra Sinfonikoaren (B.O.S.) eta Arriaga Antzokiaren ekimen bateratu bati esker, eta lehen aldiz orkestra handi baten laguntzaz, gure artean izan genuen Michel Camilo, jazz latindar delakoaren ordezkari garrantzitsuenetako bat. Egitarauaren barruan bere "Piano eta orkestrarako kontzertua" eta G. Gershwin-en "Rhapsody in blue" eskaini zizkigun.

Gracias a una iniciativa conjunta de la Orquesta Sinfónica de Bilbao (B.O.S.) y del Teatro Arriaga tuvimos ocasión de contar, por primera vez acompañado de una gran orquesta entre nosotros, con Michel Camilo, uno de los máximos representantes del llamado jazz latino. En el programa nos ofreció su propio "Concierto para piano y orquesta" y "Rhapsody in blue" de G. Gershwin.





# BELLE & SEBASTIAN

**martxoa 14** marzo

**ESCENA IREKIA**
ESCENA ABIERTA

**Honako hauek osatzen dute Belle & Sebastian: Bob Kildea, gitarra eta baxua; Chris Geddes, pianoa eta teklatuak; Mick Cooke, tronpeta, gitarra eta baxua; Richard Colburn, perkusioa; Sarah Martin, ahotsak eta biolina; Stevie Jackson, gitarra eta ahotsak; eta Stuart Murdoch, pianoa, gitarra eta ahotsak. Talde eskoziar hau 1996ko urtarrilean sortu zen Glasgow-n.**
**Belle & Sebastian-ek lehengo eta oraingo pop talderik onena dela berretsi du 'Dear catastrophe waitress' (Rough Trade/ Sinnamon Records 03) lanarekin.**

Belle & Sebastian son Bob Kildea, guitarra y bajo; Chris Geddes, piano y teclados; Mick Cooke, trompeta, guitarra y bajo; Richard Colburn, percursión; Sarah Martin, voces y violín; Stevie Jackson, guitarra y voces; y Stuart Murdoch, piano, guitarra y voces. El grupo escocés se formó en enero de 1996 en Glasgow.
'Dear catastrophe waitress' (Rough Trade/ Sinnamon Records 03) vuelve a confirmar a Belle & Sebastian como una de las mejores bandas de pop de todos los tiempos.

# HISTORIA DE UNA ESCALERA

**martxoa 18 - 20** marzo

**ANTZERKIA**TEATRO

**Estreinatu zenetik berrogeita hamar urte baino gehiago igaro direlarik, Centro Dramático Nacional-ek XX. mendeko espainiar antzerkiaren barruan klasikoa den lan hau eskaini zigun. Carlos Perez de la Fuenteren zuzendaritzapean, Antonio Buero Vallejoren lan honek gure barrenak astintzen jarraitzen du, hiru belaunalditan bizi diren, amets egiten duten, eta maizegi porrot egiten duten gizon eta emakume xumeen bitartez.**

Más de cincuenta años después de su estreno, el Centro Dramático Nacional nos ofreció este clásico del teatro español del siglo XX. En un montaje dirigido por Juan Carlos Pérez de la Fuente, la obra de Antonio Buero Vallejo sigue conmoviéndonos con la vida de estas tres generaciones de hombres y mujeres modestos que viven, sueñan y demasiado a menudo fracasan.





## LA CUADRA DE SEVILLA

ANTZERKIA-DANTZA
TEATRO-DANZA

### martxoa 26 - 27 marzo

**Salvador Tavora sortzaile eta zuzendaria buru, La Cuadra de Sevilla 1972an aurkeztu zen jendaurrean "Quejío" lanarekin. Harrezkero, euren lurreko dantza eta kantuak adierazpidetzat hartuz, herri andaluziarraren poztasun, atsekabe, drama eta bizitzaren gainean jardun dute eten barik. Ikuskizun honen eragilea, inspirazioaren pizgarria, Carl Orff-en "Carmina Burana" musika-obra ezaguna izan zen.**

María Dolores Pradera volvió a regalarnos con "Canciones del alma" un magnífico espectáculo, en esta ocasión con una novedosa puesta en escena y acompañada de su banda habitual (guitarras, charango, contrabajo, percusiones y requinto) reforzada por otros artistas que nos aportaron aires de México con su música mariachi.

## BALLET DE LEIPZIG

DANTZADANZA

### apirila 2 - 3 abril

**Gutxi dira Alemanian Balet konpainia handiak. Horietako bat Leipzigeko Baleta da. Koreografo eta zuzendaria Uwe Scholz ospetsu eta saritua dugu. Oso egitarau zorrotzarekin etorri ziren: L. van Beethovenen "Zazpigarren Sinfonia, la maiorrean, 92. op." eta H. Berliozen "Sinfonia Fantastikoa, 14. op."**

El Ballet de Leipzig, una de la pocas grandes compañías alemanas de ballet, cuyo coreógrafo y director es el prestigioso y galardonado Uwe Scholz, se presentó con un muy exigente programa: la "Séptima Sinfonía, en la mayor, op. 92" de L. van Beethoven y la "Sinfonía Fantástica, op. 14" de H. Berlioz.







## EL MAGO DE OZ

DANTZADANZA

apirila 15 - 16 abril

Frank Baum-en izenburu bereko ipuinean oinarritua, Ananda Dansa konpainiako buru diren Rosangeles eta Edison Valls neba-arrebek haurrentzako sortu zuten dantza ikuskizun hau hasiera batean, baina obrak berdin-berdin liluratu zituen nagusiak ere. Dorothy izeneko protagonistak irudimenaren herrialdera egindako bidaia harrigarri honek hainbat sari jaso zuen, eta sariez gain, baita aldeko kritika sutsuak eta milaka ikusleren txaloak ere.

Basándose en el cuento de Frank Baum del mismo título, los hermanos Rosángeles y Edison Valls, al frente de la compañía Ananda Dansa, crearon este espectáculo de danza, concebido originalmente para los niños, pero que fascinó igualmente a los mayores. El viaje maravilloso de su protagonista, Dorothy, al país de la imaginación cosechó varios premios, críticas entusiastas y el aplauso de miles de espectadores.

## EL BARRIO

ESCENA IREKIA
ESCENA ABIERTA

apirila 22 abril

XXI. mendeko poeta urbanoa da bere jarraitzaileentzat. Bera da Jose Luis Figueredo, Selu, “El Barrio”. Eszenatokira igotzen den bakoitzean ikusleek dena ematen dute, eta bere sentimenduekin bat egiten dute. Nahiz eta bere garaikoak ez izan, aitortzen du Alameda, Medina Azahara edota Triana bezalako andaluziar rock taldeen eragina hor dagoela.

Poeta urbano del siglo XXI para sus seguidores, José Luis Figuereo, Selu, “El Barrio”, cuenta con un público que se vuelca y vive con él sus sentimientos cada vez que se sube a un escenario. Aunque no sean de su tiempo, se declara inspirado por el rock andaluz de Alameda, Medina Azahara, Triana…



## COMPAÑÍA DE DANZA AUKERAN

DANTZADANZA

apirila 24 abril

Aukeran Dantza Konpainiak "Izena duen guztia omen da" ikuskizuna eskaini zigun, euskal kulturako antzinako mitoetan eta kristautasuna sartu aurretiko sinesmenetan inspiratzen den obra. Koreografia eta zuzendaritza lanetan Edu Muruamendiaraz izan genuen; gidoigile eta eszena-zuzendari, berriz, J. A. Vitoria eta Garbi Losada.

La compañía de danza Aukeran, con la coreografía y dirección de Edu Muruamendiaraz y el guión y dirección escénica de J. A. Vitoria y Garbi Losada nos ofreció "Izena duen guztia omen da" (Todo lo que tiene nombre, existe), un espectáculo inspirado en los mitos ancestrales de la cultura vasca, anteriores a las creencias cristianas.

## METAPOLIS PROJECT 972

DANTZADANZA

apirila 29 abril

Arriaga Antzokiaren eta Guggenheim museoaren ekimenez, Charleroi/Danses-Plan K dantza garaikide konpainiak aurkeztu zigun muntaia bat non espazioaren arte biak uztartzen ziren, hots: dantza eta arkitektura. Bi dira etorkizuneko hiriaren sortzaileak: alde batetik, Frederic Flamand dantzari, konpainiako zuzendari eta Plan K-ren sortzailea, eta, bestetik, Zaha Hadid arkitekto saritua, gure hiriko zenbait hirigintza-proiektu garrantzitsutan murgilduta dabilena.

Por iniciativa conjunta del T..Arriaga y el M. Guggenheim, la compañía de danza contemporánea Charleroi/Danses-Plan K nos presentó este montaje en el que se integraban esas dos artes del espacio: la danza y la arquitectura. Los autores de esta recreación de una ciudad futura son Frédéric Flamand, bailarín, director de la compañía y fundador de Plan K y la laureada arquitecta Zaha Hadid, vinculada a importante proyectos urbanísticos de nuestra ciudad.







## PARADERO DESCONOCIDO

**ANTZERKIA**TEATRO

**maiatza 5 - 9** mayo

Muntaia hau Tanttaka konpainiak aurkeztu zigun. Kressman Taylor-en kontakizunetik abiatuta, Fernando Bernues-ek zuzendu eta egokitu du antzerkirako. Hogeita hamargarren hamarkadaren hasieran, bi lagunen arteko gutun bidezko harreman honetan –bata alemana da eta bestea estatubatuar judutarra–, nazien erregimenaren izaera eta hurbiltzen ari den basakeria agertzen joango da.

La compañía Tanttaka nos ofreció este montaje, dirigido y adaptado para el teatro a partir del relato de Kressman Taylor por Fernando Bernués, donde la relación epistolar de dos amigos, alemán uno y judío estadounidense el otro, al comienzo de los años treinta ira desvelando la naturaleza del régimen nazi y anunciando la barbarie que se avecina.

## ELS JOGLARS

**ANTZERKIA**TEATRO

**maiatza 5 - 9** mayo

Cervantesen "El retablo de las maravillas" entremesean inspiratua –kristau zaharraren seme-alaba legitimoek baino ikusten ez duten tapiza–, Albert Boadellak gaur egungo gauza miragarri faltsu guztien aurka –izan politikoak, erlijiozkoak nahiz sukaldaritzakoak– egiten du oraingoan ere, hain berea duen betiko sarkasmoaren eta trebetasun dramatikoaren bitartez.

Inspirándose en el entremés de Cervantes "El retablo de las maravillas" –un tapiz que sólo alcanzan a ver los hijos legítimos de cristiano viejo– Albert Boadella vuelve a arremeter con su sarcasmo habitual y su pericia dramática contra todas las falsas maravillas de hoy; sean políticas, religiosas o culinarias.





## PACO DE LUCÍA

maiatza 11 mayo

**ESCENA IREKIA**
ESCENA ABIERTA

**Gitarra flamenkoaren berritzaile nagusitzat hartzen dute eta bere etengabeko jakin-min artistikoak beste musika mota batzuetara hurbilarazi du. Paco de Lucia dugu, zalantza gabe, flamenko musikaririk unibertsalena, eta mundu osoan aitortzen da gitarra-konpositore eta kontzertistarik onenetakoa dela.**

Considerado como el gran renovador de la guitarra flamenca y dotado de una permanente inquietud artística que le ha impulsado a intentar una aproximación a otros tipos de música, Paco de Lucía es sin duda el más universal de los flamencos y está reconocido en todo el mundo como uno de los mejores compositores y concertistas de guitarra.

## BALLET GULBENKIAN

maiatza 14 - 15 mayo

**DANTZA**DANZA

**Munduko kultur-fundazio ospetsuenetako bati atxikia, Walter Gore-k sortu zuen Gubelkian Baleta 1965ean. 1966tik aurrera Iracity Cardosoren zuzendaritzapean, Arriagara egindako bisitan zera eskaini ziguten: "Cantata", Mauro Bigonzettiren koreografia, napolitar unibertsoari egindako omenaldi gisan sortua, eta "Minus 7", Ohad Naharin-en koreografietan oinarritua, cha-cha-cha-tik hasi eta bossa nova-rainoko musikekin.**

Adscrito a una de las fundaciones culturales más prestigiosas del mundo, el Ballet Gulbenkian fue fundado en 1965 por Walter Gore. Dirigido desde 1996 por la brasileña Iracity Cardoso, nos ofreció en su visita al Arriaga: "Cantata", coreografía de Mauro Bigonzetti concebida como un homenaje al universo napolitano y "Minus 7", basado en coreografías de Ohad Naharin, con músicas desde el cha-cha-cha a la bossa nova.







## GEORGES MOUSTAKI

ESCENA IREKIA
ESCENA ABIERTA

maiatza 16 mayo

**Egiptoko Alexandrian jaio zen 1934an baina Parisen bizi da 17 urte zituenetik. Bizar eta ile urdineko gizon honek –agertokian beti zuriz jantzita azaltzen dena– bai frantziar herri-musikaren historian eta bai hainbat belaunaldiren sentimenduzko memorian arrastorik sakonena utzi duten kantuetako batzuk egin ditu ia mende erdiko ibilbidean.**

Nacido en Alejandría (Egipto) en 1934, pero instalado en París desde los 17 años, este hombre de barba y pelo canos, vestido siempre de blanco sobre el escenario, lleva casi medio siglo componiendo algunas de las canciones que han dejado más honda huella en la historia de la música popular francesa y en la memoria sentimental de varias generaciones.

## IL MONDO DELLA LUNA

OPERAOPERA

maiatza 21 - 21 mayo

**1777an aurkeztu zuen lehen aldiz Joseph Haydinek "drama giocoso" hau, Carlo Goldoniren kontakizun batean oinarritua, non senar-emazte kontuen eta garai hartako usadioen gaineko satira dibertigarria egiten den. Hona iritsi zitzaiguna erotismoz, irudimenez eta fantasiaz beteriko muntaia izan zen. Eszenategian Iago Pericot-ek zuzentzen zuen obra; musikaz, berriz, Joan Caballe arduratzen zen. Teatre Lliurek, el Gran Teatre del Liceuk eta Arriaga Antzokiak berak koproduzitua.**

Joseph Haydn estrenó en 1777 este "drama giocoso", basado en un relato de Carlo Goldoni, donde se traza una divertida sátira del matrimonio y las costumbres de la época. A nosotros nos llegó en un montaje lleno de erotismo, imaginación y fantasía dirigido escénicamente por Iago Pericot y musicalmente por Joan Caballé coproducido por el Teatre Lliure, el Gran Teatre del Liceu y el propio Teatro Arriaga.







## LOS SECRETOS

maiatza 23 mayo

**ESCENA IREKIA**
ESCENA ABIERTA

Espainiar Pop-aren barruan onenetarikoak izaki, Los Secretos taldearen ezaugarri nagusien artean aipatu behar da, lehen-lehenik, euren arrakastatik, moden zurrunbilotik eta taldekide-aldaketa guztietatik onik irteten jakin izana. Eta hori gertatu da euren abestien kalitateari esker, garai bateko nerabeak hunkitu ondoren, gaur egun ere hogeita hamar urtetik gorakoak eta ondorengo belaunaldiak ere hunkitzen jarraitzen baitute.

Si algo caracteriza a Los Secretos, una de las mejores bandas del Pop español, es que han sabido sobrevivir a su propio éxito, a los cambios de modas y a distintas formaciones. Y lo han hecho por la calidad de sus canciones, que conmovieron a los adolescentes y hoy siguen emocionando a los que ya han cumplido los treinta y a las generaciones posteriores.



## EL REY SE MUERE

maiatza 28 - 29 mayo

**ANTZERKIA**TEATRO

Jose Luis Gomezek sortutako eta berak zuzentzen duen El Teatro de la Abadia-k Ionescoren obran ardazturiko muntaia aurkeztu zigun. Ionesco dugu, hain zuzen, absurduaren inguruko antzerkiaren aiten artean bat. Umore beltzez zipriztindua, antzerkiak giza-izaerari buruz inoiz egin duen hausnarketarik sakonenetako bat eskaintzen digu “El rey se muere” (“Erregea hiltzen ari da”) obrak.

El Teatro de la Abadía, creado y dirigido por José Luis Gómez, presentó este montaje de la obra de Ionesco, considerado uno de los padres del teatro del absurdo. A través de un velo de humor negro en “El rey se muere” se nos ofrece una de las reflexiones más profundas que sobre la condición humana ha hecho el teatro.





# OCELOT

**ZIRKUA**CIRCO

**ekaina 3 - 5** junio

Ocelot poloniar artista-talde bat da. Taldea Bogdan Zajac-ek eta Julian Hasiej-ek sortu zuten 1998an eta orduz geroztik beraiek zuzentzen dute. Ikuskizun honetan nahasten dira kirola, akrobazia, gimnasia, dantza, antzerkia eta musika. Emanaldian zehar ikusleak bat egiten du taldearen magiarekin; eta ez hori bakarrik: une batez hegan egitearen ametsa errealitate bihurtuta ikusten du.

Ocelot, el grupo de artistas polacos fundado y dirigido desde 1998 por Bogdan Zajac y Julian Hasiej, ofrece un espectáculo en el que se combinan deporte, acrobacia, gimnasia, danza teatro y música, logrando envolver al espectador en su magia y convirtiendo por un momento en realidad el sueño humano de volar.

# WIT

**ANTZERKIA**TEATRO

**ekaina 3 - 5** junio

Rosa Mª Sardak, zazpi urtean zinean eta telebistan jardun ondoren, oholtzara itzultzea erabaki zuen Margaret Edson-i 1999ko Pulitzer Saria ekarri zion testu honekin. Lluis Pasqualek zuzendutako muntaia honek modu harrigarriro dibertigarrian kontatzen digu minbizia fase aurreratuan duelako albistea jaso berri duen unibertsitateko irakaslearen drama.

Rosa Mª Sardá, tras siete años dedicada al cine y la TV, decidió volver a las tablas con este texto que mereció a su autora, Margaret Edson, el Premio Pulitzer de 1999. En este montaje, dirigido por Lluis Pasqual, se cuenta de forma emocionada y sorprendentemente divertida el drama de una profesora universitaria que acaba de recibir la noticia de que padece un cáncer en fase avanzada.







# FAEMINO Y CANSADO

ESCENA IREKIA
ESCENA ABIERTA

**ekaina 15 - 20 junio**

**Umoregile bikote honek hamar urte baino gehiago darama jendeari barre eragiten, horretarako famatuak edo politikariak imitatu behar izan gabe. Euren emanaldi itxuraz xaloek egoera hutsal batean izaten dute abiapuntua, baina aurrera egin ahala, ezin asmatuzko norabideak hartzen dituzte umoregileek, absurduaren eta antzerki-fartsa burugabearen artean. Jende asko dago, barre-malkoak lehortu bitartean, onenak direla esaten duena.**

Esta pareja de humoristas llevan juntos más de diez años haciendo reír a la gente, sin tener que recurrir a las imitaciones de famosos o políticos. Sus espectáculos de aparente sencillez parten de una situación banal que ellos desarrollan por derroteros insospechables entre el absurdo y la astracanada. Son muchas las personas que, secándose las lágrimas de risa, afirman que son los mejores.

# SONATA EN UN SEGUNDO... Y PICO

ANTZERKIA TEATRO

**ekaina 22 - 23 junio**

**Antzerki-testu honen egilea Patxo Telleria dugu. Emanaldiak euskaraz eta gazteleraz izan ziren, eta aktoreak, ondokoak: Inaxio Tolosa, Jose Cruz Gurrutxaga eta Patxo Telleria bera. Zuzendari lanetan, berriz, Aitor Mazo ibili zen. Arrakasta-mozorro baten pean bildutako porrot baten kontakizun gazi-geza da: musikari bat inguruabarrak herrestan daramana, eta ez dakiena horri nola aurre egin.**

Este texto teatral, del que es autor Patxo Tellería, fue representado en euskera y castellano por los actores Inaxio Tolosa, José Cruz Gurrutxaga y el propio Patxo Tellería con dirección de Aitor Mazo. Se trata del relato agridulce de un fracaso disfrazado de éxito, donde un músico se ve arrastrado por unas circunstancias contra las que no sabe cómo rebelarse.





# HOY: EL DIARIO DE ADÁN Y EVA

**KONTZERTUAK**CONCIERTOS

**ekaina 24 - 26** junio

**Irrati-antzerkiko izar izandako aktore batek bere azken irratsaioa ekarri du gogora egin dioten elkarrizketa batean. Irratsaioa Mark Twainen "Adan eta Ebaren egunkaria"-ren inguruan ardaztu zen. Agertokian amodio-istorio bi gurutzatzen dira: gure lehenengo aita-amena batetik, eta berak mikrofono-kidearekin izan zuena bestetik. Miguel Angel Sola eta Blanca Oteiza artista miragarriek astinaldi bortitzak eragin zizkiguten barre eta negar artean.**

Un actor, vieja estrella del radioteatro, entrevistado por una joven periodista recuerda su último programa, el dedicado a "El diario de Adán y Eva" de Mark Twain. En el escenario se entrecruzan dos historias de amor: la de nuestros primeros padres y la que él padeció por su compañera de micrófono. Dos actores prodigiosos, Miguel Angel Solá y Blanca Oteiza, supieron agitarnos entre la risa y el llanto.

# LA CUBANA

**ANTZERKIA**TEATRO

**abuztua 13 - 5 iraila**

agosto 13 - 5 septiembre

**La Cubana antzerki-talde kataluniarraren "Mamá quiero ser famoso" ("Amatxo, famatua izan nahi dut") obra, ordurik onenak "famatu berriei" eskaintzen dizkion telebista-ereduan inspiratzen da. Horretarako, plato bat birsortu eta halako telebista-saio bat ekoizten dute gure aurrean. Parodia garratz, anker eta dibertigarria dugu, gidoiaz eta zuzendaritzaz arduratzen den Jordi Milanen ideia batean oinarritua.**

El grupo teatral catalán La Cubana se inspira para "Mamá quiero ser famoso" en la televisión que dedica sus mejores horas a los "nuevos famosos". Y para ello recrea un plató y produce ante nuestros ojos uno de esos programas. Una parodia corrosiva, feroz y divertida basada en una idea de Jordi Milán, responsable también del guión y la dirección.







## EL INVITADO

**ANTZERKIA**TEATRO

iraila 8 - 19 septiembre

Komedia krudel honekin David Pharaok Moliere sarietarako lau izendapen jaso zituen Frantzian. Bere egoera latza leundu nahian buruzagi bat etxera afaltzera ekartzea onartzen duen langabe baten zorigaitza kontatzen du obra honek. Juan Margallok zuzendua, eta, beste batzuen artean, Joaquin Kremelek eta Carman Conesak antzeztua, dudarik ez, muntaia honen xedea barre eragitea da, baina pentsatzeari utzi barik.

Esta comedia cruel, con la que su autor David Pharao obtuvo en Francia cuatro nominaciones a los premios Moliere, nos cuenta las desdichas de un parado que pretende aliviar su situación aceptando que acuda a cenar a su casa un dirigente. Dirigido por Juan Margallo e interpretado entre otros por Joaquín Kremel y Carmen Conesa este montaje busca sin duda hacer reír sin dejar de hacer pensar.



## CAMUT BAND

**ESCENA IREKIA**
ESCENA ABIERTA

iraila 23 - 26 septiembre

Camut Band konpainiak sortutako “La vida es ritmo” (“Bizitza erritmoa da”) ikuskizunean, afrikar dantza, klakea, ahotsa eta harea gaineko dantza nahasten dira, eta emaitza originala, freskoa eta bizitasunez betea da. Gainera, ikuslea hain geratzen da liluraturik euren indar, erritmo eta umore-senarekin, non imitatzen hasteko gogoa sartzen zaion.

En “La vida es ritmo”, el espectáculo creado por la compañía Camut Band, se mezclan la danza africana, el claqué, la voz y la danza sobre arena, consiguiendo un resultado original, fresco y lleno de vida, que provoca en el espectador, seducido por su energía, su ritmo y su sentido del humor, el impulso de imitarles.



## CARMEN, CARMELA

DANTZADANZA

iraila 29 - 3 urria

septiembre 29 - 3 octubre

P. Merimée-k bere eleberrian sortutako mitoa, G. Bizet-en operak jendarteratu zuena, Antonio Canales koreografo eta flamenko-dantzariak landu du oraingoan, eta nahi izan du obra unibertsal horren ikuskera propioa erakutsi, dantza, gitarrak eta antzerkiaren bitartez. Horretarako beste aparteko bi flamenko-dantzarik lagundu diote: Lola Grecok eta Diego Llorik; gainera, Miguel Narros-ek hartu du zuzendaritza eszenikoaren ardura.

El mito creado en su novela por P. Mérimée y popularizado por la ópera de G. Bizet es revisado en esta ocasión por el coreógrafo y bailaor Antonio Canales, que ha querido mostrar una visión propia de esta obra universal, recurriendo a la danza, las guitarras y el teatro. Para ello ha contado con la colaboración de otros dos bailaores de excepción: Lola Greco y Diego Llori y la dirección escénica de Miguel Narros.

## YO, CLAUDIO

ANTZERKIATEATRO

urria 7 - 10 octubre

Hector Alterio argentinar aktore handia da Claudio, alegia, guardia pretoriarra eta patuaren adar-jotze bat tarteko, enperadore bihurtu zen pertsonaia zahar eta totela. Jose Luis Alonso de Santosek antzerkirako egokitutako Robert Graves-en testuari jarraiki, Claudiok zenbait galdera egiten digu botereaz, justiziaz, traizioaz eta heriotzaz. Jose Carlos Plazak zuzendutako muntaia honek hainbat Max Antzerki Sari jaso zituen 2005ean.

Hector Alterio, el gran actor argentino, es Claudio, el viejo y tartamudo personaje convertido en emperador por una broma del destino y la guardia pretoriana. Siguiendo el texto de Robert Graves adaptado al teatro por José Luis Alonso de Santos, Claudio va a hacernos unas cuantas preguntas sobre el poder, la justicia, la traición y la muerte. El montaje, dirigido por José Carlos Plaza, recibió varios Premios Max de Teatro – 2005.







# NEDERLANDS DANS THEATER

DANTZADANZA

urria 15 - 16 octubre

Hauxe izan da munduko dantza garaikide konpainien artean ospetsuenetarikoa den Nederlands Dans Theater Arriaga Antzokira etorri den hirugarren aldia. Jirí Kylián txekiarra da konpainia honetako Koreografo Egoiliarra eta Aholkulari Artistikoa. Aurreko bi bisitaldietan bezala, azken honetan ere oroitzapen ahaztezinak utzi ditu Nederlands Dans Theater-ek zaleen artean, hain berea duten dantzan egiteko era eder, alegera eta bizi horri esker.

Esta era la tercera ocasión en que el Nederlands Dans Theater, una de las compañías de danza contemporánea más prestigiosas del mundo, cuyo Coreógrafo Residente y Consejero Artístico es el checo Jirí Kylián, acudía al Teatro Arriaga. Y como en las dos visitas anteriores dejó entre los aficionados un recuerdo imborrable por la belleza, alegría y frescura de su manera de bailar.

# PEDRO GUERRA

ESCENA IREKIA
ESCENA ABIERTA

urria 17 octubre

Pedro Guerra konpositore eta kantariak bere zazpigarren diskoa, “Bolsillos”, aurkezteko egin zigun bisita. Tenerife kanariar uharte hegoaldean dagoen Güimarren 1966an jaio zen Pedro Guerra. Hamasei urterekin hasi zen musikan eta bere orain arteko ibilbidean zerbait aipatzekotan, kalitatea eta zorroztasuna nabarmenduko ditugu. Kolaborazio ugari egin ditu, besteak beste, Joaquin Sabina, Ana Belen, Victor Manuel, Pablo Milanes, Lluis Llach eta Cesaria Evorarekin.

Con ocasión de presentar su séptimo disco, “Bolsillos”, nos visitó el compositor y cantante Pedro Guerra. Nacido en Güimar en el sur de la isla canaria de Tenerife en 1966, desde los dieciséis años viene desarrollando una carrera musical marcada por la calidad y el rigor. Ha colaborado con artistas como Joaquín Sabina, Ana Belén, Victor Manuel, Pablo Milanés, Lluis Llach o Cesaria Evora.





## YERMA

DANTZADANZA

urria 20 - 24 octubre

1934an estreinatu zuen Federico Garcia Lorcak Yerma. Oraingo honetan, espainiar dantzaren barruan arras pertsona inportantea eta Compañía Andaluza de Danza-ko buru den Cristina Hoyosek kontatu digu, bere adierazpide hutsaren indarra baliatuz bakarrik, ama izan artean etsi nahi ez duen emakumearen istorio hau. Jose Carlos Plaza da gidoia, dramaturgia eta zuzendaritzaren arduraduna; koreografia, berriz, Cristina Hoyosek berak landu du.

Federico García Lorca estrenó Yerma en 1934. En la actualidad Cristina Hoyos, una de las más señaladas figuras del baile español, al frente de su Compañía Andaluza de Danza, nos ha contado, recurriendo sólo a la fuerza de su propio medio expresivo, esta tragedia de la mujer que no puede resignarse a no ser madre. El guión, la dramaturgia y la dirección son de José Carlos Plaza y la coreografía de la propia Cristina Hoyos.

## LA STAGIONE FRANKFURT

KONTZERTUACONCIERTO

urria 25 octubre

J. Haydn eta W. A. Mozarti eskainitako egitarau batekin etorri zen Bilbora La Stagione Frankfurt, gaur egun munduan dauden jatorrizko instrumentu-orkestren artean garrantzitsuenetako bat, beronen sortzaile eta zuzendari Michael Schneider buruan. Eurekin batera egungo tenore lirikoetan onenetakoa den Christoph Pregardien etorri zen, barrokotik hasi eta XX. mendeko konpositoreetara luzatzen den errepertorio zabal batekin.

Con un programa dedicado a J. Haydn y W. A. Mozart se presentó en Bilbao, La Stagione Frankfurt, una de las orquestas de instrumentos originales más importantes del mundo en este momento, con su fundador y director al frente, Michael Schneider. Les acompañó uno de los mejores tenores líricos del momento, Christoph Prégardien, cuyo amplio repertorio abarca desde el barroco a los compositores del siglo XX.





## SANTA JUANA DE LOS MATADEROS

**ANTZERKIA**TEATRO

**urria 27 - 28** octubre

**Bertolt Brechtek 1931n idatzi zuen "Santa Joana hiltegietakoa". Obra hau dugu antzerki didaktikoaren eredu ezin hobea, borrokalaria eta egilea bera gogotik jardun zen borroka sozialaren zerbitzura jarria. Alex Rigolak –Teatre Lliureren ekoizpen honen zuzendaria–egungo kapitalismo globalak eragiten duen desasoseguari buruzko ikuskizun txundigarri bihurtu du okelaren espekulazioaren salaketa hau.**

Bertolt Brecht escribió "Santa Juana de los mataderos" en 1931 y es un perfecto ejemplo de teatro didáctico, combativo, puesto al servicio de la lucha social en la que tan activamente participó su autor. Alex Rigola, el director de esta producción del Teatre Lliure, ha convertido esta denuncia de la especulación de la carne, en un espectáculo impactante sobre el desasosiego provocado por el actual capitalismo global.

## BEBO VALDÉS CUARTETO

**ESCENA IREKIA**
ESCENA ABIERTA

**urria 29** octubre

**Latindar jazzaren maisu kubatarra, uharteko musikaren urrezko aroan nabarmendu zen Bebo Valdes piano-jole, moldatzaile, konpositore eta musika-zuzendaria, laukote bat osatuz etorri zen. Beborekin batera Javier Colina –Europako kontrabaxu-jolerik onenetako bat–, Efrain Porro tunbadora-jolea eta Beboren seme Rickard Valdes paila-jolea etorri ziren.**

El maestro cubano del jazz latino, una de las cimeras de la época de oro de la música de la isla, Bebo Valdés, pianista, arreglista, compositor y director musical se presentó formando un cuarteto en compañía de Javier Colina, reconocido como uno de los mejores contrabajistas europeos, Efraín Porro a las tumbadoras y su hijo Rickard Valdés a las pailas.







## EN TIERRA DE NADIE

**ANTZERKIA**TEATRO

**urria 31 - 1 azaroa**

octubre 31 - 1 noviembre

**"En tierra de nadie" Danis Tanovic-ek egindako bosniar filmaren antzerki-bertsioa da. Film honek atzerritar ekoizpen onenaren Oscar saria jaso zuen 2002an. Egokitzapenaren arduraduna Ernesto Caballero da eta zuzendaria, berriz, Roberto Cerda. Basakeria hiltzailea, gorrotoa, mendekua, eta hau guztia geldiarazteko Europako erakunde eta gobernuek erakusten duten utzikeria agertzen zaizkigu obra honetan, ikuspegi garratz batetik eta umore bereziarekin.**

"En tierra de nadie" es la versión teatral de la película bosnia de Danis Tanovic que obtuvo en 2002 el Oscar a la mejor producción extranjera, adaptada por Ernesto Caballero y dirigida por Roberto Cerdá. La barbarie homicida, el odio y la venganza, y el desinterés por atajarlos de los organismos y gobiernos de Europa son expuestos con una mirada mordaz y un especial sentido del humor.

## LA TEMPESTAD

**ANTZERKIA**TEATRO

**azaroa 3 - 6** noviembre

